

PONENTZIA POLITIKO-ESTRATEGIKOA

1.- BEGIRADA GAZTE ETA BORROKALARIA GURE INGURUARI.

Gazteok ez dugu inoiz egun daukagun gizarte-ongizate maila izan; ez ditugu sekula gauzak gaur egun ditugun bezain erraz izan. Informaziora eta teknologia berrietara dugun sarbidea, dibertitzeko era ugariak, adierazpen eta pentsatzeko askatasuna, jaiotzen garen une beretik gozatzen ditugun erosotasunak, bizitzan aurrera egiteko aukera infinituak, etab. Belaunaldi pribilegiatua gara, aurreko belaunaldien esfortzuei esker. Ez dago zertan isilean gorde, daukagun guztia haiei zor diegu.

Edo, behintzat, hau da egunez egun esaten digutena, gauza bera entzuteaz nekatuta gaude. Beste modu batean irauli eta eragozpen ugari sortu zitzazkeen gazteen belaunaldi oso bat lokartuta eta alde batera zokoratua mantentzeko istorio perfektua. Izan ere... zer da benetan daukaguna? Zer da oinordekotzan jaso duguna? Zein da gure etorkizuna, eta ondoren etorriko diren belaunaldiena?

Oso litekeena da galdera horiek, eta beste hainbat, Camilia Vallejo 23 urteko ikasle mugimenduaren liderraren buruan bueltaka egotea; hezkuntza publiko, doako eta kalitatezkoaren defentsan Gobernu oso bat estuarazi duen gazte txiletarra, Sebastián Piñera Presidente Jaunari berari loa kentzen diona eta eskuinaren partetik, Twitter bidez, heriotz mehatxuak jaso dituen berbera. Bera adibide soil bat da, mundu guztian zehar eta betikoen gehiegikerien ondorioz kontu zaharretan sinesten ez dugunon erakusgarri agerikoena.

Krisiaz hitz egin dezagun, bai, baina ez erdizka. Krisi estruktural eta iraunkorraren sinonimo den sistema batez baliatuta, munduko biztanleriaren gehiengoarengandik probetxua ateratzen dutenak –aberastasuna edo boterea lortuz– seinalatzea dagokigu; bortizki globalizatzailea den sistema, ingurumenarekin eta gure planetaren baliabide mugatuekin oso errespetugabea dena. Sistema ezegonkor baina ziklikoa, aitzitik ondo kalkulatu eta bere desordena ordenatuarekin; momento honetan zutik mantentzeko beharrezkoa duen bere gaizkiagotze fase bat baino erakusten ez duena. Krisiari eta finantzia hondamenari aurre egiteko irtenbide bakar moduan egungo garapen eremuan sakontzeak, aurreraka egindako ihesaldi itsua besterik ez du suposatzen, eta etorkizun hurbilean ondorio latzak izango dituen dimentsio anitzeko krisia era atzeraezinean larriagotzen ari da. Munduko gazteok esan behar dugu, eta diogu, nahikoa dela.

Jakina, Euskal Herriko gazteriak badauka planetako beste leku batzuetan, eta zehazki European, gertatzen denarekin zerikusia. Zentzu horretan, lehenago planteatutako galderetara itzuliz, Iratzarrin badakigu, eta honen inguruan hausnartzen jardun dugu gure I. Kongresutik, gure aurreko belaunaldiek baino bizi baldintza kaskarragoak jasango dituen lehenengo belaunaldia izango gara seguruenik. Hezkuntza, aisialdia eta kulturaren merkantilizazioa; murrizketak zerbitzu sozialetan; langabezia eta lan prekarietatea; kode patriarkalak; espekulazioa eta etxebizitzarako sarbiderik eza; gure ideien kriminalizazioa... Azken finean, gizarte bazterketara kondenatzen gaituzte gazte, emakume, etorkin, etab. izate soilagatik.

Orain dela asko utzi genion euren oker deituriko ongizate estatuan sinesteari, eta are okerrago deituriko euren gazteria politiketan sinesteari. Bada denbora gure etorkizunerako eskubidea eta arlo politiko-sozialean parte hartze aktiboa izateko eskubidea aldarrikatzen ditugula. Gero eta gehiago dira, justifikatuta dagoen haserretik haratago, Barcina, López-Basagoiti, Azkuna, etabarren eredutik haratago bestelako ereduak badaudela bat egiten duten gazteak; alternatibak gure esku ditugula sinestuta gaudenak. Gero eta gehiago gara kalean, gizarte mugimenduetan, gaztetxeetan, Iratzarri moduko gazte erakundeetan; borrokak elkartu eta haizearen aurka lanean dihardugunak berdintasunez beteriko gizarte justu eta begirunezko baten alde. Eta hori da, zalantzarik gabe, gatazka sozial guzti honen albiste ona.

2.- EUSKAL HERRIA BAKE ETA NORMALIZAZIO POLITIKORANTZ. EUSKAL HERRIA INDEPENDENTZARANTZ.

“Eskubide guztien defentsa da gure borrokaren funtsa”. Ezin da hobeki laburbildu iratzarrikideon pentsaera, euskal jendarteak hainbestetan galdegindako bakegintzaren inguruan. Esaldi tinko eta argia, Aintzane Ezenarrok gure erakundearen II. Kongresuan adierazi zuena. Lehenago, Bake Bidean Aterabide Demokratikoen Akordioa –Gernikako Akordioa, alegia– aurkeztu zen, Iratzarri talde sinatzaileen artean zegoelarik.

Gernikako Akordioa pausu handia da gure herriarentzako, hamaika eragilek konpartitzen dugun bake eta normalizazio politikorako ibilbide orria. ARALARren ekarpen nabariari esker, ez izan dudarik, testu ia ezin hobea. Bertan jasotzen da alderdi honen oinarri ideologiko nagusienetarikoa: Pertsona guztiak, ideia guztiak, proiektu guztiak.

Gernikako Akordioa, hortaz, oso agiri garrantzitsu eta itxaropentsua da euskal gazteriarentzat, baita Iratzarrirentzat ere. Sinatu genuenetik urtebete pasa den honetan, ETAk orain dela gutxi borroka armatua bukatutzat eman duen honetan, espainiar eta frantziar Estatuei dagokie akordio hau bere osotasunean onartzea eta behin betiko bakea lortzeko pausuak ematea. Inmobilismoa alde batera utziz, denok norantza berdinean bultza egiteko garaia da. Bestetik, guretzat oso inportantea da EPPK-ek akordioa babestu izana, baina Euskal Herriko beste hainbat eragile sozial, sindikal eta politiko inportanteren atxikimendua ere lortzeko bidean, ahalegin haundiagoaren hutsunea sentitzen dugu. Horrexegatik Iratzarrik abian jarriko diren dinamiketara parte hartzen jarraituko du, Gernikako Akordioak merezi duen sinesgarritasuna eduki dezan; bakea, adiskidetze eta sufrimendu guztien aitopenearen aldeko konpromiso irmo bihurtu dadin, gizarte osokoa eta maila orotan.

Benetan pentsatzen dugu, bakegintza eta normalizazio politikoaren kapitulu honi behar bezala heltzea dela Euskal Herriak bizi duen gatazka nazionalari konponbidea emateko gakoa. Pertsona guztien eskubide guztiak aitortu eta errespetatu behar dira, ez dugu inolako eskubide urraketarik onartzen. Euskal gazteok hala exijitzen dugu, gure herriak bere etorkizuna erabakitzeko duen eskubidea argi eta garbi aldarrikitzen dugun modu berdintsuan. Demokrazian sinesten dugu. Tresna zibil eta politikoak baditugu, denon artean eta ezkerretik herri libre eta plurala eraikitzen eta egungo markoa gaituz. Jakina, euskararen herriaren independentzian sinesten dugu; munduko beste herrietara zabalik dagoen herria, solidarioa eta bere etorkizunaren jabe.

3.- IRATZARRI, ERAKUNDE BERRITUA ERRONKA BERRIEI AURRE EGITEKO

Gaur bizi dugun egoera, orain dela urtebete Iratzarriren II. Kongresua egin genuenean bizi genuenarekin alderatuta, desberdina da hainbat aspektutan. Hau izan da gure Kongresua aurreratzeko arrazoietakoa bat. Ez dira gutxi, beraz, aurrean ditugun erronkak, bai barnera begira eta baita kanpora begira ere, erantzuna eskatzen dutenak, zaila baina interes handikoa den testuinguru batean.

II. Kongresua kontsolidazioaren eremuan kokatzen genuen bitartean, III. Kongresu hau Iratzarriren berriztatzerara bideratu behar dugu. Ez gara ari, inolaz ere, zerotik hasteaz, hor baitaude azken urtean eta aurreko urte guztietan egindako lana eta esperientziak. Iratzarri burutu beharreko berriztatzea arrotza ez zaigun estruktura baterantzkoa da, dagoeneko bizi izan dugun eta ezaguna zaigun egiturantzkoa. Honela, Herrialdetako Asanbladak, Hegoaldeko Koordinakundearekin batera, erakundearen muina izatera bueltatzen dira barne ikuspegi batetik.

Kongresu honetan berrikusitako estatutuak eta Iratzarriren korpus ideologikoa osatzen duten kalitate handiko ponentziak ditugu, zeinen arabera garatuko den erakundearen jarduera. Gure eskura dauden bitarteko guztiak, ez direnak hain gutxi, erabiliko ditugu gure mezua euskal gazteriari helarazteko: kaleko presentzia – kanpainak, boletin sinpleak, mobilizazioak, Bilbogune bezalako ekimenak, unibertsitatea–; Interneten –web orria, lurraldetako blogak, gizarte sareak–; etab... Bestalde, komunikazio estrategia gure I. Kongresuan ezarritakoaren antzekoa izango da, egunerokoan iratzarrikideen ekimena eta parte hartzea bultzatze aldera.

Iratzarri erakunde ezkertiar eta abertzalea da, lehenengo unetik gizarte mugimendu transformatzaileen baitan lan egitearen eta gure herriko gazte eragileen arteko ekintza batasunaren alde apustu egin duena. Horrela, hainbat plataforma sektorialetan eta foru bateratutan parte hartu izan dugu, eta ekimen ezberdinak martxan jarri izan ditugu sinergiak sortzeko eta gazte bezala arduratzen gaituzten gaien inguruan hausnartzeko helburuekin. Zentzu honetan, azpimarratzekoa da Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren barnean egindako lan etengabea; gure asmoa da, eta Nafarroako Asanbladaren helburu garrantzitsu izan behar du, Nafarroako Gazte Kontseiluan ere modu aktiboan parte hartzea. Edota hainbestetan gogoratzen dugun KLGn elkarte anitzekin borroka eta esperientziak konpartitu izana. Halaber, Iratzarri antolatuta, Bilbon ospatu genituen I. Nazioarteko Gazte Topaketen arrakasta nabarmendu beharrekoa da; Euskal Herriko, Galizako eta Herri Katalanetako hainbat gazte erakunderen parte hartzea izan zituena. Aniztasunetik eraikitako ekintza hauek batasunaren eta indarrak batzeko gure borondatearen adibide dira, Iratzarriren lehentasuna izaten jarraituko duena ez soilik Euskal Herri mailan, baizik eta nazioarte mailan ere.

Gure erakundearen beste zutabeetako bat formakuntzari betidanik eman diogun garrantzia da. Gutariko gehienok Iratzarriko militantzia beste militantzia batzuekin uztartzen dugu, eta hau oso aberasgarria dela ulertzen dugu. Izan ere, aurretik aipatzen genuen eraldaketa soziala lortzeko, gazteria informatua, kritikoa, sentikorra, independentea behar dugu ezinbestean; esna dauden gazteak, iritzia ematen dutenak eta inplikatzeko direnak, borrokatzen eta lortzen dutenak. Gure asmoa da jardunaldiak, tailerrak, eztabaidak, hitzaldiak... bultzatzen eta elkarbanatzen jarraitzea; barnekoak, irekiak, pertsona adituekin edota mugimendu sozialetako pertsonekin... sakonago landu nahi ditugun gaien ingurukoak. Inkonformistak, desobeditzaileak, baina batez ere, gazte formatuak.

Iratzarri jabetzen gara gure II. Kongresuaren garaian ARALARrek bizi zuen egoera eta egungoa desberdinak direla. Halere, alderdi honi loturiko gazte erakunde izanda, berretsi nahi dugu ARALARren mezua eta proiektua bere osotasunean mantentzeko premia, orain inoiz baino gehiago. Ez dugu konplexurik ARALARrengan etorkizuneko apustu bezala sinesten dugula baieztatzeko; ezker abertzale zibil, zabal eta demokratikoan sinesten jarraitzen dugula, eragiteko eta aldatzeko

gaitasuna izango duen ezker abertzalean. Eta konbentzimendu osoz diogu ezker abertzale berri hori ARALARrek egindako lanaren oinarrien gainean eraikiko dela. Halaber, tresna baliagarria izateko borondatea daukagunez ahalik eta gazte kopuru handienarentzat, gure izaera autonomia berretsi nahi dugu; esperientziak erakutsi digulako Iratzarrik bere inizitiba eta diskurtso propioak izatea plus bat dela Aralarrentzako.

Mugimendu desberdinetan aktiboki parte hartzen dugunok badakigu aisialdia eta dibertsioa, sarriagotan garatzen ditugun dinamikak bezain inportanteak direla. Horregatik gai hau zaintzeko asmoa dugu, ulertzen dugulako Iratzarri osatzen dugunon taldea indartzeko era onenetarikoa dela, baita beste asko gurera erakartzekoa ere. Gizarte honek behar duen aldaketarako motorea gara, eta ahoan irribarre batekin ez bada oso latz daukagu. Badakigu bidea ez dela beti erreza izango, baina noizbait izan al da, akaso? Jarrai dezagun aurrera, merezi du eta!

Euskal Herria, 2011ko azaroan.